


«Ez dugu injustua den lege bat zertan bete»

Grabagailua martxan jartzerako, ari zen hizketan...

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco



...
Tontakeria itzela da krisia atzean uztear gaudela pentsatzea. Kapitalismoa existitzen deno ez gara tuneletik aterako. Are gehiago, zientzia-fikzioa egin eta tunela zeharkatzen dugula suposatuta ere, atzetik letorkeena askoz okerragoa litzateke. Neurrigabeko hazkunde sarraskitzailean murgilduko ginateke, ezberdintasun sozial zein ekonomikoek bakoitza bere lubakira kondenatuko luke-

te... Zergatik uste duzu sinonimo bihurtu direla “garaiei egokitzea” eta eskubide sozialak pikutara botatzea? Ez daukate arrazoirik, arrazoirik ez daukatenez jendeak protestatzen du, eta protestei aurre egiteko atzeman duten modu bakarra askatasuna eta eskubideak zanpatzea da. “Arrazoiaren indarrak ez daukagunez, to indarraren arrazoiak!”. Eskubideen murrizketa, errepresio poliziala, zentzurik gabeko epaiketak, neurririk gabeko

zigorrak... Arrazoi falta da sistema guztia martxan jartzen duena.

Austeritatea predikatzen du sistemak.

Amerikako Estatu Batuetako eredurantz goaz: %1a urre gorritan eta gainontzeko %99a izorratuta. Horixe da kapitalismo basatia, gupidarik gabeko indibidualismoa... Oraintsu arte ongizate estatua zena ongi esate estatua besterik ez da egun. Baina gosea dagoenean ezdeusa da ongi esatea, soluzioak behar dira. Alta, gure agintari gorenak gose aurpegia jartzen dute eta beste erremediorik ez dagoelakoan gerrikoa estutzeko errepikatzen. Ba ez, irtenbideak badaude, ongizate estatua ez da utopia, baliabide pertinentek eskaini behar zaizkion aukera erreala da. Iruzur fiskala murriztuz, gastu militarra deuseztatuz, eta bankuen erreskateak erabat bertan behera utziz, badakizu zenbat milioi bideratu genitzakeen ongizate estatuak ezinbesteko dituen zerbitzu eta oinarritzko eskubideak bermatzera? Nahikoa eta sobera.

Lehentasunetan dago arazoa, beraz?

Ikusi besterik ez dago errentaren banaketa nola egiten den. Kapitalak gero eta diru gehiago dauka eta lana gero eta gutxiago ordaintzen da. Horregatik, aitzina egiteko, aldi berean daukaguna desegitera eta nahi duguna eraikitzaera kondematuta gaude. Gero eta indartsuagoak eta zentralizatuagoak diren botere fluxuak oztopatu behar ditugu, euren praktikak ipurdi-bistan laga, arazoen iturburua direla salatu. Era berean, ekonomia berri bat ehundu behar dugu, arloz arlokako alternatibak marko orokor batean konektatu, eta marko orokor horri ikusgarritasuna eman. Nork ez du laborantza ekologikoa, komertzio justua edo banku etikoaren berri? Alternatiba horiek sortuko dute egoera eta sistema ekonomiko berria. Ez dago besterik. Kapitalismoak indarrean diraueno, drogak hegoaldean ekoitziko dira eta iparraldean kontsumitu, eta armak iparraldean ekoitziko dira eta hegoaldean kontsumitu. Zergatik uste duzu dauzkagula pertsonak ekonomiaren zerbitzura eta ez ekonomia pertsonen menara? Kapitalismoak pertsonaren kontrola duelako helburu. Kapitalismoak badaki pertsona merkatuaren zepoan harrapatzen duenean kontrola errazagoa dela, sistema betikotzeko aukerak indartzen direla... Aipatutako alternatibetan pertsonak dauka boterea, pertsonekin ezer ez da betiko, eta betiko ez dena kontrolagaitzagoa da.

Oso kontrolatuta gaudelako ez daude kaleak sutan?

Batetik, komunikabide nagusiek ez dute euren lana egiten. Agintarien iruzur eta juku-

triak ikertu eta sistemaren trapu-zaharrak etengabe argitara eman beharrean audientzia hipnotizatzen dute *Salvame* eta futbolarekin. Egiaren erdia estali eta beste erdia lau egunen buruan baztertu eta ahanzten bada, nekez alda liteke ezer. Horregatik, medio handien egiteko nagusia jendea engainatzea da, eta engainatu ezin dutenean entretenitzea. Pixkanaka demokrazia formalaren aldeko espazio gero eta zabalagoa sortzen dute, eta horrela ezinezkoa da hauteskundeak betikoek ez irabaztea. Bestetik, ezkutuko ekonomiak indar handia du, Espainiako Estatuan sortzen den aberastasunaren %25a da. Horri esker, prekarioritza jotzen dugun jende taldearen zati handi bat ez da hain prekariora, bizirauteko beste ateratzen duelako. Gainera, jendarte latinoetan oso hedatuta dago familia barruko elkartasuna, eta horrek are gehiago murrizten du dena galduta dutenen multzoa. Azkenik, jendeak beldur izugarria du, hezurretarainokoa, orain dela 40 urte baino anitzez handiagoa. Orduan jendeak egurra jaso zezakeen, zigortua izan, baina ez zuen beldurrik. Urteekin beldurra itsatsi digute errailetan, eta ez dago beldurra bezalako anestesianterik, dena paralizatzen du. Hala, dena galduta daukanak ez du beldurrik ukan ohi, baina ia dena galdu arren oraindik zer bait daukana baino beldur- tiagorik ez dago.

Nola galdu beldurra?

Lehenik eta behin, gertatzen ari denaren inguruko informazio zehatz eta zuzena erdie-tsiz. Sekulako porrua sartzen ari zaizkizula konturatzean asaldatu egiten zara, baina zer gertatzen ari den ez dakizunean ez zara ez poztzen, ez mintzen, ez ezer. Bigarrenik, beldurra galtzeko oinarritzko da jendea elkartzea. Aldarrikapen baten inguruan biltzeak beldurgabetzen du jendea, multzoan bihurtzen da indartsu norbanakoa, eta asko izateak zigor sistema guztia jartzen du kolokan. Zergatik uste duzu kapitalismoak indibidualismoa sartu nahi digula zainetan? Zergatik uste duzu ari dela betiko baloreak etengabe kolpa-

NORTASUN AGIRIA

Arcadi Oliveres. Bartzelonan sortua 1945ean. Ekonomialari, unibertsitateko irakasle, liburu anitzen egile (esaterako, *Ya Basta*, *En qué mundo vivimos*, *detengamos la crisis*), eta urtetan Justicia i Pau-ko lehendakari zein aktibista ezagun honek, 2013an plataforma herrikoi bat sortu zuen Teresa Forcadese-kin batera Kataluniaren independentzia sustatzeko asmoz. Une honetan bere bizitza eta borrokaren inguruko dokumentala grabatzen ari dira.



tu eta pitzatzen? Zergatik esaten zaio lehen egunetik ekonomia edo enpresaritzza ikasle bati enpresaren helburu gorena etekin ekonomikoekin aberastea dela eta estatuak ekonomiarik hazten laguntzea duela misio bakar? Nork dio zoriontasuna metatze materialetik eta ongizatea jabetzatik datorrela? Sekulako astakeriak dira, baina etengabe sartzen dizkigute kaskoan, eta balore sendoetan oinarritu beharrean arrakalaz josita abiatzen bazara, lehen ekaitzean hondora zoaz.

Ez hondoratzeko, mugimendu sozialek pisu politikoa lortu behar dute?

Sistemak desastre handi bat hitzeman digu, eta ezer egiten ez duguno, are sarraski odoltsuagoak hitzematen segituko du. Zein den alternatibaren egitura? Oraingoetik arras ezberdina izanik ere, ez dut uste egoera honi alderdi politiko berri batekin erantzun dakiokeenik. Gainera, zerk bermatzen digu aldaketaren ardura lukeen balizko alderdi hori ez litzatekeela egungo ohiko alderdien bizioetan eroriko? Niretzat indar sozial, ekonomiko, eta kulturalak artikulatzean datza gakoa. Are gehiago, ez dut uste lan eremua esparru nazionala denik. Auzoz auzo, herriz herri eta bailaraz bailara eraman beharreko lana da. Ni kohesio eta artikulazio horren alde lan egiteko xedez konprometitu naiz Kataluniako prozesuarekin.

Pil-pilean dago auzia.

PPk arazo bat dauka Kataluniarekin, eta ez askotan esaten den bezala, Kataluniak PPren. Katalunian independentista asko daude, eta gauzak diren bezala, debeku eta gorrotoz beteriko mespretxuzko adierazpenekin PPk sekulako mesedea egiten dio independentismo kataluniarrari. Hala, betiko independentistak independentista berriekin metatzen dira eta irailaren 11ro kaleek gainez egiten dute. Krisi ekonomikoak pisu handia izan du independentismo horren eztandan. Niretzat, ordea, Kataluniak independentzia behar du herri bat delako, hizkuntza bat delako, historia bat, idiosinkrasia bat, ez independentziak egoera ekonomiko hobea ekar dezakeelako. Independentzia berezko eskubidea da, gero goseak hilko bagara ere! Horregatik, azaroaren 9ko galdeketa ez dutela ofizialki baimentzen? Oso ongi, jendetza ikaragarri batek emango du bere iritzia demokraziaren oinarritzko eskubide bat nekez isildu daitekeela ohartzen diren arte. Ikusteke dago alderdi guztiek pragmatismoaren langa adostutako mailan mantentzen duten ala bidean sortu daitezkeen tentazio ezberdinek independentzia haize hori nahastuten duten.

Lkusten duzu zure burua politikan?

Politikan bai, alderdi baten baitan edo kargu publiko bezala ez. Prozesu honekin bururaino konprometituta nago, baina katalizatzaile bat naiz, mugimendu ezberdinen arteko zubi-lana ahalbidetzea dut xede. Egun batean, indar ezberdin horien arteko hauteskunde zerrenda bat osatu beharko balitz buru-belarri lagunduko nuke baina ez nintzateke aurkeztuko. 1966an poliziak fitxatu ninduenetik nabil saltsa politikoetan. Niretzat ekonomia baino politikoagorik ez dago. Jendeak, erdi serio erdi broman, maiz egotzi dit beti politikan ibili eta sekula politikaren gudu-zelaira ez jaitsi izana. Egia da. Ez naiz sekula alderdi batekoa izan, ez dut inongo alderditan militatu. Horregatik erabaki dut nire azken urteak gudu-zelaian ematea, hango eta hemengo indarrak harilkatu eta aldaketa politikoa iruten.

Ez al dauzkagu merezi ditugun agintari politikoak?

Ez dut uste ez merezi ditugunik ez merezi gaituztenik. Aski argi eta iaioak dira, ordea, iritzi publikoari gauzak ongi edo ahal bezain ongi egiten ari direla sinetsarazteko. Etengabeko manipulazio informatiboari esker jendearen gogoeta gaitasuna murrizten dute, eta horrela oso erraza da jendearen onarpena jasotzea. Horregatik, independentzia aldarrikatzea, informazioa, iritzi publikoaren heziketa eta hausnarketa aldarrikatzea ere izan behar luke. Bestela, Bárcenas kartzelan dagoenez, sistemak ongi funtzionatzen duela sinetsita lasai egiten duzu lo. Baina noiz sartuko dute Barne ministroa kartzelan Ceutan egiten ari den krimenengatik? Noiz epaituko dute Aznar Irakeko gerrarengatik? Rajoyk zenbat delitu sozial gehiago egin behar ditu akusatu aulkian esertzeko?

Galderak airean nola, Justicia i Pau-ren lehen-dakaritza utzi berri duzu.



ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Galparsoro OKINDEGIA


Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

AZKEN HITZA

Iruzur fiskala

"Espainian, lagun batekin kafea hartzen ari zarela ongi geratu nahi baduzu aski duzu ogasuna engainatzen duzula esatea. Suedia edo Norvegian gauza bera esan eta salatu egingo zaituzte. Ez dakit pikareskaren kultura edo kulturaren pikareska den, baina bote-retsuenek ere iruzur egiten dutela jakitean ez da inor harritzen".



30 urtetik gora pasa ditut Justicia i Paun gorputz eta arima bakea eta giza-eskubideak hedatzen eta sustatzen. Ezin izan dugu nahi genuen guztia lortu baina uste dut lan handia egin dugula iritzi publikoa sentsibilizatu eta informatzen. Gure kasa zein gainontzeko mugimenduekin elkarlanean, politikan eragitea lortu dugu. Pozik noa, kooperazioan, etxegabetzeen arloan, edo NATOren aurkako borrokan egindakoaz harro. Orain aldarrikapen zentzuzko bezain sustraituak iruditzen zaizkigu asko eta asko, baina ez dut ahanzten hastapenetan zenbat ginen pankartaren giblean. Ez pentsa banku etikoa edo gobernuz kanpoko erakundeak bezalako kontzeptuak normaltasun osoz erabili direnik beti. Pauso txikiak dira, baina garrantzitsuak.

Hurrengo pauso txiki eta garrantzitsuak desobedientziaren bidetik etor daitezke?

Ez dago filologoa izan beharrik "krisis" grezieraz aukera dela jakiteko. Garai lauso eta nahasi hauek probestu behar dira jendearek ez dela samurra erakutsi eta orain arte

bezala segitzea gure buruaz beste egitea dela argi uzteko. Horretarako, auzolana, elkartasuna eta desobedientzia behar ditugu, baina jakina, desobedientziak zailtasun eta arriskuen jabe izan eta beldurra galtzea esan nahi du. Ez dugu injustua den lege bat zertan bete, zilegitasuna legearen gainetik dago. Hasierara itzuliz, indarraren arrazoia da legalitatea, arrazoiaren indarra zilegitasuna.

Arazoiaren indarra pertsonaren hazkundera datza?

Eta pertsonaren hazkundera ekonomiaren desazkunderari hertsiki lotuta dago. Ez bagara desazkunde materialaren bidean jartzen gure bilobek kontuak eskatuko dizkigute. Astakeria bat, ergelkeria hutsa da zoriontasuna bermatzeko ekonomiak neurrigabe hazten segi behar duela pentsatzea. Mentalitate eta jarrera aldaketak behar ditugu. Edukitzearekin itsutu beharrean, itsutu gaitezen izatearekin. Izatearekin itsutzen denak berezkoagoak ditu auzolana eta elkartasuna, gogoeta gaitasun handiagoa du, sistemak arazotzat aurkezten dizkionak huskeriak iruditzen zaizkio, ez dauka hainbeste beldurrik, eta burujabe izateko bidean desobeditzeko prest dago. Bistan da hori dela alternatibaren oinarria. ■



CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com

Antolatzailea: EHAZE

V. "ESPERIENTZIXAK"
KRITIKARI GORROTO
 Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean
 Maiatzaren 13an, 19.00etan
 Mahai-ingurua: Agus Perez (Berria) eta Jaime Valverde (Gara)
 Moderatzailea: Karlos del Olmo
 "Piztu gabeko zigarroak" (Xabier Lopez Askasibar)
 Irakurketa dramatizatua Maite Arreseren eta Mikel Martinezen eskutik

LOMCE desobeditzeko gida

Espainiako Gobernua ezartzeaz den LOMCE legea ez aplikatzeko, puntuz puntu nola jokatu behar dute irakasle, ikasle, guraso eta ikastetxeek? Desobedientzia horrek zein ondorio ekar liezaieke? Nola egin aurre ondorio horiei? Zalantzak uxatzea helburu duen gida prestatu dute hainbat hezkuntza eragileren artean.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

ADOS DAGO HEZKUNTZA KOMUNITATEA: ezagutza memoristikoa eta ikuspegi merkantilista oinarrituriko curriculum espainiar elitista dakar LOMCE legeak, eta eredu horri kontra egitea da bidea. Horretarako, *Gure Gida. LOMCEri aurre egin eta Euskal Herrian gure hezkuntza eraikitze*ko liburuxka prestatu dute ELA, LAB, STEE-EILAS, Sortzen Ikasbatuaz, Ikasle Abertzaleak, Hik Hasi eta Partaidek, arlo pedagogiko eta juridikoan aditu direnen laguntzaz.

Desobedientzia batzuetan ez du zigor administratibo edo juridikorik, beste batzuetan ikastetxeetako langileei eragin diezaieke, eta hainbatetan baita ikasleei eurei ere. Zigorga-betasunetik balizko ondorio okerrenetarako, hona gidak aztertu dituen kasu nagusiak eta proposatzen dituen neurriak.

1) Gestioa, eskola komunitateak

Ikastetxearen funtzionamenduan eta zuzendariaren hautaketan pisu handiena organo gorenak du gaur egun, irakasle, ikasle, langile, guraso eta abarrek osatua. Organoaren erabakitze ahalmena aholkularitzara mugatu nahi du lege berriak, boterea zuzendariarengan kontzentratu, eta zuzendaria aukeratzeko orduan organoak duen garrantzia ezabatu. Era berean, molde jakin bateko hezkuntza pribatua ere lagunduko du dekretuak (sexu bereizketa egiten duena, euskara oinarri ez duena...), horien kontzertazioa erraztuz eta diru-laguntzak jaso ditzatela ahalbidetuz.

Gidak proposatzen du ikastetxeek bermatu dezatela eskola komunitateko ordezkari guztien parte-hartzea eta erabakitze ahalme-

Gida ikastetxez ikastetxe azaltzea dute xede. "Zabaltzea da asmoa, denona egitea, ikastetxe guztien tresna izan dadin", dio Marian Viadero egileetako batek. (Argazki-muntaia: Dani Blanco).

na, funtzionamendu eta kudeaketa demokratikoa ziurtatuz. Administrazioek ikuskariak bidal ditzakete legea betetzen ari ote den segurtatzeko, baina zigor aldetik "printzipioz ez du inolako ondoriorik", diote adituek.

2) Euskara ardatz

Gaztelania hezkuntza ibilbidearen oinarritzeko hizkuntza izan dadila agintzen du LOMCEk, murgiltze ereduak edota euskara oinarritzeko hizkuntza izatea debekatuz. Gidak dio, ordea, euskara hizkuntza-ardatza izateko konpromisoa hartu behar dutela eskoletan, bai ikasgelan, bai gainerako eremuetan ere, ikasle euskaldun eleanitzak hezteko. Estrategia honek ere ez luke ondorio administratibo edo legalik.

3) Ikasleen banaketa goiztiarrari uko

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailan, ikasle "onak" eta "txarrak" banatzera bultzatzen du PPrene ereduak, unibertsitatera joango direnak eta Lanbide Heziketara doazenak bereizteko (ibilbide osoan sustatzen du legeak bereizketa akademikoa, ebaluaketen bidez batzuk baztertuz eta diskriminatuz). Oinarritzeko Lanbide Heziketa deiturikoak ere, emaitza akademiko jakin bat lortzen ez duten 15-17 urteko ikasleak bertan integratzea eta ibilbide orokorretik ateratzea (eta bide batez, eskola porrota eta nota txarrak ezkutatzea) du helburu.

Ikasleen arteko sailkatzea eta mailakatzea saihesteko, eta aukera berdintasuna bermatzeko, ikastetxeetan banaketa goiztiarrik ez egitea, gurasoek seme-alaben banaketa hori